

OSTIRALA, 2026ko EKAINAREN 19a

# *San Martzialak*

IRUN

• OARSO BIDASOKO •

# HITZA

## Hemen dira festa luzeenak

**Ofizialki hilaren 23an hasiko dira, baina asteburutik indarra hartuko dute uztailaren lehenean bukatuko diren San Pedro eta San Martzial festek • 21-25**



# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

Euskara beti ahoan,  
Sanmartzialetan  
ere bai!





Ainara Peña idazkaria, Hatxeroa erraldoiaren ondoan. G. Correyero

## 15 urtez jiran eta biran Irungo kaleetan

GORKA CORREYERO LLAMAS

Sanmartzialak ospatzeko hamai-ka modu daude. Ondare Kultur Elkarteko kideek erraldoien barruan ospatzen dituzte festak. Dantzan eta familia giroan pasa dituzte azken 15 urteak, eta hala izaten jarraitzea nahi dute. Aurtengoak hasteko egun gutxi batzuk falta dira, eta Ainara Peña Ondare Kultur Elkarteko idazkariak urduritasuna baino, festetarako gogoia du, «dena ondo ateratzea nahi

dugu». Hilaren 28an, 18:00etan, Alberto Anguera plazatik hasita, kalejira egingo dute Atsegiñako eta Bidasoako erraldoiekin batera. Urteroko kalejiraz gain, aurtengo sanmartzialetarako berritasuna erraldoiak ezagutzeko tailerra izango da.

Aste honetan, IrekiART espazioan «erraldioen eskulanak» egiteko eta dantzatzeko tailerrak antolatu dituzte, gaur da azken eguna. «Aste honetako tailerren bitartez, gure eskaintza modu irekian zabaldu dugu eta harrobia sortzeko baliagarria zaigu», azaldu du Peñak. Erraldoiak familian bizitzeko jarduera direla dio. «Haurrak *engantxatu* nahi ditugu, gurekin dantza egin eta erraldioen mundua barrutik ezagutu dezaten», nabarmendu du.

### Historia ikasteko bidea

Ondarek urteak adina erraldoi ditu: hamabost. Gainera, lau buruhandi ere baditu. Erraldoi guztiak badute hiriarrekin harreman estua, eta lehenengo erraldoiak jenerala eta kantinera izan ziren. Urteekin, familia handitu dute: Luis Mariano, Lastargiduna, Hatxeroa, Ama Bitxia eta Amona baserritarra, besteak beste, gehitu dituzte. Peñarentzat lehenengo bi erraldoiak bereziak dira, baina hala ere, badu bereziagoa den bat: Hatxeroa. «Nire aitaren omenekoa da, horregatik niretzat oso berezia da», azaldu du, hunkituta, erraldoiaren ondoan. «Erraldoiek hiriko historia ezagutzeko aukera ematen dute, bakoitzak berea baitu. Sanmartzialetan jaiekin harremana duten erraldoiak aterako ditugu». ■

Irungo alardea

Hogeita hamar urteko itxaronaldia gehiegi da.



Zure konfiantzazko optikan zaude!!

**bidaso** optika  
www.bidasooptika.es

RUN - Nafarroa Etorbidea, 21 - 943 63 01 93 - 605 70 84 34  
info@bidasooptikayaudio.com - www.bidasooptikayaudio.com

- Gure optikan beharrezko balorazio optometrikoa egiten dizugu. Gainera, zure ikusmen arazorako aholku pertsonalizatua emango dizugu.
- Marka ezberdinetako gamma zabala armazoietan
- Prezio eskuragarriak urte guztian
- Aldi-kako azterketak garrantzitsuak dira gaixotasunak saihesteko
- Haurrentzako azterketak eskola porrota ekiditeko
- Terapia bisuala

# «Ekitaldia xumea izan arren, jendetza biltzen da»

GORKA CORREYERO LLAMAS

**S**an Juan Egunaren bezperarekin batera hasten dira sanmartzialak. San Juan plazan egiten duten ekitaldi ofizialaz aparte, Moskun, espetxearen erreketaren antolatzen dute urtero, 21:45ean hasita.

## Espetxearen erreketaren ekitaldian zer aldarrikatzen duzue?

Konponbidea eta preso guztiak etxean nahi ditugula aldarrikatzeko modua da, elkartasun keinu gisa. Aspaldidanik, San Juan bezperan egiten dugun ekitaldia da. Irungo ezker abertzalearen bueltan gaudenok antolatzen dugu, preso senideekin eta lagunekin batera. Egun horretan ohikoa da suak egitea, eta suak gauza txarrak uxatzen ditu.

Azkenaldian aurrerapausoak eman dira, baina argi dugu preso guztiak etxean izan arte jarraituko dugula. Herriko txalapartariak eta Kemen Dantza Taldeko dantzariak parte hartzen dute; eta ondoren, irakurketa laburra egiten dugu konponbidea, etxeratzea eta elkartasuna aldarrikatzeko. Jaien hasiera goxoa da. Honen bitartez, ohe hutsak irudikatu nahi ditugu. Ekitaldia xumea izan arren, jendetza biltzen da. Berezia da, ez baita beste herrietan egiten.

**Sarek berriki adierazi du ekitaldi masiboak bukatu nahi dituela. Aurtengoa azkena izango al da?**

## DANI HERNANDEZ

### HAZIAKO KIDEA



Dani Hernandez

Gaur-gaurkoz bi euskal preso irundar ditugu, eta Euskal Herrian 95 daude. Azkena izan daiteke, ez dakigu. Hausnartu behar dugu Irungo egoera zein den. Sarek argi eta garbi adierazi zuen ekitaldi masiboak amaitu nahi dituela, baina azken preso askatu arte Sare hor izango da eta lanean jarraituko du. Guk ere berdin jarraituko dugu, baina ezin dugu esan 23koa azken espetxe erretzea zango denik. Modu batean edo bestean egoera politikora egokitzen jarraituko dugu, eta preso eskubideen defentsan lanean jarraituko dugu.

**Zein egoeratan daude Irungo presoak?**

Iratxe Sorzabal eta Fermin Vila *Fermo* Martuteneko eta Zabalako (Araba) espetxeetan daude, hurrenez hurren. Azken urteetan aurrerapausoak izan arren, oraindik ere preso jarraitzen dute eta baldintzapeko askatasuna lortzeko tamalez urteak geratzen zaizkie bie. ■



Jostallu elkarteko dultzaineroak. JOSTALLU

# Dultzainak prest, San Pedro eguna kalez kale girotzeko

**I**rungo sanmartzialen barnean, askok San Pedro eguna asko maite dute, ekainaren azken eguna baino. Agian adin kontua da, edota familian ikusitakoaren ondorio. Baina argi dago San Pedro egunak garrantzia handia duela irundarrengan. Hainbat ekitaldi burutzen dira egunean, baina eguna hasteko diana izaten da, udaletxetik hasita. Jostallu elkarteko dultzaineroek dute diana horren ardura, eta ez dira bakarrik egoten, ekainaren 28an parranda egiten duten dozenaka gazte batzen zizkielako ondoan.

Iñaki Akerretak 2013. urtetik darama San Pedro eguneko diana jotzen, Josta-

Iluko bere kideekin batera. «Lehenago Urantzuko dultzaineroek egiten zuten, Agirretxe anaiek, Eugeniok eta Konstantinok, baina zoritxarrez, pausu bat atzera eman behar izan zuten, eta guk hartu genuen lekukoa», azaldu du Akerretak. 08:00etan hasten dira, San Juan plazan, eta eguneko diana *Segurako alborada*-rekin abiatzen dute. Aurten hainbat auzotan izango dira, hala nola San Migelen, Anakan, edo Juan Vollmer eta Pio XII plazetan.

28a egun handia da Irungo gazteen-tzat, parranda egiteko eguna gorritz markatuta dute-eta egutegian. «Askok 28ko gaua gu hasi arte luzatzen dute. Hori izaten da haien helburua, dultzaineroen diana ikusi, eta ondoren lotara joatea. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den ohitura da», adierazi du Akerretak. Pasabide moduko bat egiten diete gazteek San Juan plazan, eta ondoren, haien atzetik joaten dira, nola ez, *Segurako alborada* lau haizeetara abestuz. «Guretzako momentu oso polita da. Ikustea nola jendeak itxoiten gaituen eta gero nola gurekin batzen diren, polita da. Gainera, errespetu handiz jokatzeko dute».

San Pedro eguna nabarmentzeko balio du dianak, askotan badirudi-eta sanmartzialak ekainaren 30era mugatzen direla. «Jende askorentzat San Pedro eguna San Martzial eguna baino garrantzitsuagoa da. San Pedro egunari eta baserriar egunari ez diogu kasu asko egiten herrian, baina familia askorentzat egun garrantzitsuenak dira».

Erreportaje osoa [bidaso.hitza.eus](http://bidaso.hitza.eus) atarian. ■

## URKO IRIDOY ALZELAI

belarrakekodenda@gmail.com

943 50 18 40  
688 806 747

@belarrak.ekodenda

Foruen kalea 15  
20302 - IRUN

## Jaietan ere, zuen ondoan.

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79

[electricidadoarso@gmail.com](mailto:electricidadoarso@gmail.com)  
[kblektrizitatea.eus](http://kblektrizitatea.eus)



## EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.bidasoaagenda



Alaine Aranburu

### LEHEN TOPAKETA, KUADRILLEN

**BIHAR (LARUNBATA).** Betti Gottik eta Antxeta Irratiak antolatutako Kuadrillen Eguna, bihar (larunbata). 13:00etan kuadrillen irteera egingo da Urdanibia plaza-  
tik txarangarekin, eta 14:30ean da bazkaria Ficoban; handik 20:30ean Urdanibiara buelta, DJ Balberrekin.



Imanol Saiz

### DENEN ALARDEAREN HIRU HAMARKADA

**HILAK 30.** Denek nahi duten bezala Irungo egun handiaz gozatzeko aukera ematen du Alarde Parekideak. Goizez eta arratsaldez irtengo da hiria berdintasunez girotzera. Aurten, gainera, baztertzaila ez den Alardeak 30 urte beteko ditu. Hilaren 26ko HITZA-ren astekarian, urteurrenaren gaineko erreportajea irakurtzeko aukera izango da.



Alaine Aranburu

### AZKEN EGUNEAN, BASERRIRA BEGIRA

**UZTAILAK 1.** Sanmartzialen azken egunaren jabe dira hiriko baserritarrak, Baserritarren Eguna baita, eta Urdanibia plazan giro berezia izango da beste behin. Besteak beste ganadu erakustaldi eta azoka 08:00etatik, bertsolariak (11:30) herri kirolak (12:00), fandango eta arin-arin txapelketa (18:00) edo profesionalen esku pilota partida Urantzun (18:00) izango dira.

**TXINGUDIKO ZERBITZUAK  
SERVICIOS DE TXINGUDI**

# GURE FESTAK, GURE ARDURA.

**Hondakinak  
ongi bereizi**

**Edalontziak  
berrerabili**

**Ez bota  
hondakinik lurrera**

**Kaleak garbi  
mantendu**

*Irun guztiona.  
Gora San Martzial!*